

kultura

sortzen dugu

BILBAO 700 • III MILELIUM

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara. Artea, pentsamendua eta musika guztiarentzat. Mundu irekia. Hau da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk** =

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**berria**

Lege gordailua: BI-85-98  
ISSN: 1577-9025

2002ko APIRILA  
43. zkia. DOHAIN

Kultur Topaketak  
I. Gazte Topagunean

"600" zaleak Begoñan

Euskararen Astea

**Martin Orbe**

**"Euskal unibertsitatea sortzeko maila akademikoa dago"**






## Gaztedikoak Karmelo plazan (1953)

*Gaztedi dantza taldea hasi barria egoala dantza agerraldi hau egin eban Karmelo plazan. 1953ko azaroaren 15a zan. Urte bi ziran 'Grupo de danzas vascas de la juventud del Carmelo y Praga de Begoña' izenagaz sortu zanetik. Gerorago 'Talde Gazte' eta 'Gaztedi' izenak hartu ebazan iaz 50 urte bete ebazan Santutxuko dantza talde ospetsuak. Inguru fisikoari erreparatu ezkeru, Karmelo plazako baztarrak ez daukie antzik be gaur egunekoakaz. Lehengo etxeak eta txaletak oraindino zutunik egozan. Besteak beste, alderdi hortan Santa Marta klinika egon zan eta, arinago, Orue txaleta bere lorategi zabalakaz.*

*Argazkia, Gaztedi dantza taldea.*



▶ Iritzia .....	4	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Kultu Topaketak .....	5	▶ Hezkuntza .....	24
▶ Begoña eta Euskerea .....	8	▶ Kirolak .....	26
▶ Euskararen Astea .....	10	▶ Mendi Ibilbidea .....	27
▶ "600" zaleak Begoñan .....	12	▶ Otxarkoagako Irratia .....	28
▶ Elkarrizketa: Martin Orbe .....	15	▶ Horoskopoa/Agenda .....	30
▶ Inkesta .....	19	▶ Hileko Argazkia .....	31

Batzuek esaten dostie ez dauriela ezebere entendiduten hamen eskribiten dotena ta txarto eskribiten dotela. Ta oingo Bertin-en leidu dot zelan hamen bere erderaz egin guren, ta erderien berbak ondo jakin ez, ta "esanbierdanmodure" esan barik, "esanbiereztanmodure" botaten zeuriez berbak bertokook, hau de, euskeraz. Ta bestiek, erderaz, "esanbierdanmodure" eitten daurienak kejau edo barre ein, baie ez entendiduten ez zeurielako, ez, ze entendidu ondo baino hogoto entendiduten zeurien, kontue kejatie zan, edo barre eittie. Ta nik pentsaten dot kontue entendidutie bada, entendiduten jakonak ondo eitten dau ta entendiduten ez jakonak txarto eitten dau, ezta?

Ez ba! Ze, nik gure badot eskribiduten dotezenak inok ez entenditea, eta inok entendiduten ez badau, ba... orduen ondo eskribidute dago. Baie baten batek entenditen badau, orduen fallo ein dogu. Ulertzen?

Ba, bardin dotzo, leiduixu hametik aurrerakoa ta aber entendiduten badozu 600 abadek zer eitten daurien eskolako matrikulak radidxotik trasmitiduten gazte batzuk "Aupa Agirre!" gedarrez dabiltzan bittartien.

Entendiduten badozu, ondo. Entendiduten ez badozu,... iguel hamen zeozer dabil txarto,... edo ez... abuenentenedor...




BEGOÑAKO BAKIO ETA BARANDIARAN KALEEN  
ESANGURAREN INGURUAN

Begoñako aurkintza hau Uribarriko auzoan topatzen dogu; izan bere, Artxandako barrenean badira hiru kale, Bizkaiko beste hainbeste portu eta hondartzaren izenak dariozanak. Kale horreetako batek Bakioko izena hartzen dau; kale honek, puntatik puntara, Tutulutik Plentziara jotzen dau; oster, Bakioko kalea zeharkatzen dau Balendin Berrio-Otxoakoaren santuarenak. Agerian dagoan legez, kale honen izena Bakioko eleizatearena da; eleizate hori Bakioko Basigoarena da.

Joxe Miel Barandiaran kalea Iturrialdean dago, eta Zabalbide kaleagaz egiten dau muga; kale honen izena euskal arkeologialari eta historialari ataundarrarena da. Joxe Miel Barandiaran 1889. urtean jaio zan Gipuzkoako Ataun herrian, eta 101 urte zituala hil zan. Berari esker ezagun dira Kortezubiko Santimamiñe atxuloak, Ekaingoak eta beste hainbat leku eta aurkintza. Beraren lanak barik, ezin izango geunke ezagutu Euskadiren historia gaur egun ezagutzen dogun sakontasunagaz. Beraren lanik esanguratsuenetakoa *El Hombre Primitivo en el País Vasco* liburua dogu.

GOTZON LOBERA REVILLA

HIRIAREN ETXEA



XVIII mendetik aurrera Bilbok San Anton ondoan eduki zituen kontzejuak eta merkatarien kontsulatuak. Hiria handiagotu zen heinean biak txiki gelditu ziren eta beste etxe bat eraikitzea pentsatu zuten. Eremu zabal bat behar zen eta horregatik orduan Bilbotik kanpo zegoen San Agustin komentua izan zenarena hautatu zuten. Toki hori 1870 urte arte Begoñako elizatearen barruan zegoen.

Proiektua Joaquín Rucoba udal arkitektoak egin zuen. Kantabriar horren burutik Arriaga Antzokia ere atera zen. Hornidura aberatsaz osatu zuen Udaletxe berria. Beirak, egurrak, marmolak, azulejoak, margoak, igeltoak eta eskulturak erabili zituen bertoko zein Frantzia eta Espainiako artistarik onenen eskuetan jartzeko. Estilo aldetik eklektizismoan sailka genezake: hau da, hizkuntza artistiko desberdinetako erreferentziak nahastean darabiltza baina kalitatea galdu barik.

Obrak 1883an hasi ziren eta bederatzi urte eman zituzten amaitu arte. 1892ko apirilaren 17an zabaldu zen eta, ondorioz, 110 urteurrena oraingo apirilean bete da. Ez da, ohi bezala, ezelango konmemoraziorik egin. 1931n Pedro Ispizua ondoko eraikuntza altzarazi zuen.

Udaletxearen ezaugarrien artean ibaiaren ondoan egonda jarrera 'irekian' dagoela nabarmendu behar da, hiriaren erdian baina bere atzean ia hiririk ez daukala. Bisitaldiak eta antzekoak egiten badira ere, nahikoa itxita agertzen da bilbotarrentzat zein bisitariarentzat.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru  
Aldundiko  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:  
Batana Batu Kultur  
Elkartea

ERREDAKZIOA:  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA  
Hektor Ortega  
ERREDAKZIOA:  
Arrate Diez,  
Joana Etxebarria, Irune  
Berro, Iratxe Ruiz,  
Erdoitza Martínez  
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:  
Iñigo Azkona eta  
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Iñaki Berastegi,  
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:  
Jaione Letamendia, Itxaso  
Perez, Alberto Ugarte,  
Iñaki Gaminde, Igor M.  
de Vidales, Santutxuko  
Bertso Eskola, Iñaki  
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,  
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:  
Koldo Urrutikoetxea,  
Zuriñe Martinez

LEGE GORDAILUA:  
Bi-85-98

ALE KOPURUA:  
1.200

# MAHATSORRIOK ERE EUSKAL KULTURAREN ALDEKO I. GAZTE TOPAGUNEAN

'KULTURAZ BLAI'  
SANTUTXUKO  
SORGINTXULO  
GAZTETXEAREN LAGUN-  
TZA EGINGO DA

maiatzak 6-12 | bilbo

# KULTURAZ BLAI

*"Euskaldunon kultura,  
gazteon ohitura"*  
*lelopean, lehen euskal  
kulturaren aldeko gazte  
topagunea antolatu dute  
datorren maiatzaren 6tik  
12 ra bitartean. "Adaska"*  
*Gazteon Kultur Elkarteak  
eta Kaskagorri taldeak  
dira Bilboko hainbat  
auzotan ospatuko den  
herri ekimen honen  
arduradunak. Gazte  
topagune honen  
sustatzaileetako bat  
Santutxuko Sorgintxulo  
dugu.*

Testua: *Arrate Diez*  
Argazkiak: *Berton*



**IRUDIA SORTZEN DUGU  
BILBO**

Santutxu kalea, 46  
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoeb.com/Spodro  
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com  
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA  
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIELARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA

☎ 94 412 82 74

O.P.E.-029/97

**CYBER TIME**  
Ordenagailua gurea da  
ideiak, zureak

Sarean jolasak  
Internet  
Inprimaketa  
Eskanerra  
Datu grabaketak...

Aita Pernet, 1  
48004 Santutxu  
Bilbo  
tfnoa/fax: 94 459 74 06  
E-mail: cyber-time.euskalnet.net  
http://www.cyber-time.euskalnet.net





lokalak ere urriak direnez, "kultura gizarteratzeko bidea kalea da". Topagune honek, Bilboko konpartsenaz gain, hainbat talderen atxikimendua eta laguntza jaso du, besteak beste, Bilboko Jai Batzordea, Sorgintxulo gaztetxea, Bilboko Gazte Emakumeen Asanblada, Kukatza, Deustuko Gazte Lokala eta hainbat gazte asanblada.

#### HIRU GUNE

Hiru gunetan banatu dituzte antolatutako ekitaldiak. Batetik, kirol gunea, gazteak erakartzeko gunea aproposa eta euskal kulturaren adierazpide dena. Astebururako prestatutako egitarauan hiru egunetan herri kirolak ikusteko eta praktikatzen aukera eskainiko dute.

Bigarren gunea kultur gunea da, bertan ekimenaren muina dago, berau baita topaketan ardatza. Ahalik eta kultur espresio gehien biltzeko asmoa dago eta Euskal Herriko antzinako kultura eta gaur eguneko uztartzea da helburua.

Hirugarren gunea musika gunek osotzen du. Gazte kulturaren ezinbesteko espresioa dugu musika gaur egun. Beraz, astebururako kontzertuak eta musika ekitaldiak antolatu dituzte.

#### UDALAK LAGUNTZA GUTXI

Kultur topagunearen antolatzaileek Bilboko Udalaren aldetik laguntza handirik ez izatea salatu dute. Ekimen batzuen prestakuntzan ez dute Udalaren baimenik jaso. Ondorioz, leku alternatiboak bilatu behar izan dituzte.

Hain zuzen, Bilboko Arenalean karpa erraldoi bat jartzeko asmoa zuten kontzertuak egiteko, baina Bilboko Udalak ez die horretarako baimenik eman. Dena dela eta oztopoak oztopo, kontzertuak izateko beste toki batzuk aurkitu dituzte.

Gure herriaren kultura ezagutzera ematea eta kalera ateratzea, euskara bultzatzea eta gazteon antolatze ahalmena indartzea dira ekimen berri honen helburu nagusiak. Bilboko gazte askoren ilusio eta esfortza biltzen dituen ekimen honetan musikak, bertsoek, herri kirolek eta mahai-inguruek hartuko dute protagonismoa, "Kulturaz Blai" izeneko egitarauan.

Iniziatibaren ezaugarrietatik esanguratsuenak parte-hartzailea, herritarra, euskalduna eta ez diruzalea izatea dira. Prestatutako ekimen honekin kultur esparruko gizarte eragile askoren parte-hartzea bultzatu eta bideratu nahi dute antolatzaileek. Kulturaz aberastu eta kultura bera aberastu gure dute. Era honetan, batetik, euskal kultura ikasteko aukera eta bestetik, kultura irakasteko aukera eskainiko digun iniziatiba dugu bilbotar gazteek antolatu dutena. Hala, eragile guztiak ekimenean parte-hartzeko ateak zabalik izango dituzte, beren kultur espresio eta kezak konpartitu ditzagun.

Antolatzaileen esanetan, gure herriaren kultura ezagutzeko ezinbestekoa da, baina hortaz gain, praktikatu eta gaur egungo bizimoldera egokitu beharra dago. Egun, "elitismo asko dago kulturaren inguruan, eguneroko bizitzatik kanpo dagoela ematen du", eta kultura bideratzeko

## KULTURAZ BLAI

### Maiatzaren 6, astelehena.

Mahai-ingurua: "Euskal musika globalizazioaren aurrean".  
Gonbidatuak: Iñigo Muguruza, Mikel Urdangarin, DJ Makala eta Aurora Renteria. Kukatza gaztetxea. 19,30etan.

### Maiatzaren 7, asteartea.

Mahai-ingurua: "Euskal Selekzioa eta munduko txapelketak".  
Gonbidatuak: Haritz Gallastegi, Sakanako tiralariak, Iker Acero, Ritxi Mendiguren. La Bolsa jauregia. 19,30etan.

### Maiatzaren 8, asteazkena.

Mahai-ingurua: "Gaztetxeen jarrera euskal kulturaren aurrean".  
Gonbidatuak: Bilboko, Gasteizko eta Iruñeko gaztetxeak. Deustuko Gazte Lokala. 19,30etan.

### Maiatzaren 9, osteguna.

Mahai-ingurua: "Bertso eskolak erdal guneean".  
Gonbidatuak: Joseba Santxo, Oihane Enbeita, Jurgi Garitagoitia eta Arkaitz Estiballes. Sorgintxulo. 19,30etan.  
Pailazoak Zazpi Kaleetan. Takolo, Pirritx eta Porrotx.

### Maiatzaren 10, ostirala.

Arratsalde jaia Areatzan (Arenalean). Harrera ekitaldia, Joseba Tapiaren azken diskoaren aurkezpen kontzertua eta luntx.

### Maiatzaren 11, larunbata.

11etan. Umeen jokoak. Bilboko koadrilen arteko herri kirol txapelketa, rokodromo eta tirolina.  
12.30etan. I Gazte Gastronomiko Txapelketa hasiera.



13etan. Gazte Bertso saioa.

14.30etan. Bazkaria. Sagardotegi herrikoia.

16etan. Sari banaketa.

17.30etan. Berbena. Kontrairo taldea eta dantza ikastaroa.

20etan. Garbanzo Negro. Amaieran, kalejira Zazpi Kaleetara.

23etan. Kale Antzerkia. La Chusma taldea. Zazpi Kaleetan.

### Maiatzaren 12, igandea.

11etan. Rokodromo.

11.30etan. Umeentzako puzgarriak.

12etan. Esku pilota erakustaldia Esperantza frontoian.

13etan. Herri kirol erakustaldia Sakanako tiralarietara.

13etan. Dantza erakustaldia.

14etan. Bertso bazkaria.

## GASTRONOMI ABILEZIAK

Ekitaldien artean, lehenengo gastronomi lehiaketa ospatuko da larunbat eguerdian. Lehiaketa gastronomiko honetan janari bi prestatu beharko dituzte aurkezten diren koadrila zein pertsonak, bakailaoa ajoarriero erara eta bakailao tortilla hain zuzen. Beraz, sutean ondo zein ez hain ondo konpontzen direnek aukera paregabea dute euren abilezia erakusteko.

Bestalde, Topagunean umeentzako hainbat ekimen prestatu dute. Azpimarragarrienak Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen kontzertua, umeentzako jolasak asteburuko goizetan eta rokodromoa. Honez gain, astean zehar mahai-inguruak antolatu dituzte Bilboko auzoetan, eta astebururako kirola, kontzertuak, graffiti, euskal dantza eta herri kirolak dira protagonista.

## SORGINTXULON MAHAI-INGURUA

"Bertso eskolak erdal guneean" mahai-ingurua egingo



da maiatzaren 9an Sorgintxulon arratsaldeko zazpi eta erdietan. Hitzaldi honen prestakuntzan Santutxuko Bertso Eskolako kideak aritu dira.

Mahai inguruan Oihane Enbeita, Joseba Santxo, Jurgi Garitaonandia eta Arkaitz Estiballes bertsolari adituak dira gonbidatuak.

Txaskarrilloak Salaketak Enkestak  
Otxarkoaga eta txurdinagan  
**WWW.PA-YA.ORG**  
Berriak Herri mogimendua Euskal kultura  
Gure presoak Pa...yak baditu alternatibak



*Gaurko atalean Begoñako euskerea barik, Begoñako erdereak dakargu bertara. Bilboko erderearen gainean, alde batetik, Bilboko Udalak Emiliano Arriagaren "Lexicón Bilbaino" liburuaren edizino barria argitaratu barri dau eta beste aldetik Josu Gemezek be, iaz "Vocabulario Popular de Bilbao" liburua argitaratu eban Bilboko herri berbeteari buruz, banatuta egon direan hainbat testu eta idatzi, oinarri moduan hartuta. Anton Larrazabal da, aitatuten dan autoretako bat eta Antonek Begoñan batutako berbak aitatuten dauz zelan ez.*


*Liburu bi honeek, Bilboko berbeta bereziaren ganean idatzita dauz, hau da euskerea eta erderearen arteko eragina bilbotarren berbetean. Koldo Mitxelenak, Mikel Zaratek eta beste batzuek be antzeko gaien ganean idatzi dabe.*

*Begoñako baserri giroan egin dan erdereak eragina euki dau berbeta beren-beregiko honetan eta horren adibide garbia, Antonek jasotako berbok dira.*

## BEGOÑAKO ERDEREA

# Begoña eta Euskerea

*Koldo Urrutikoetxea*



Anton Larrazabalek Begoñako istoriari buruz gauza asko batu dauz eta hemengo berbeteari buruz itaundu deusgunean, bere hitz jario oparoan idatzitako testuak erakutsi deuskuz.

"hirurehun eta hogeta hamalau berba batu dodaz, ba-

tzuek ume olgetakaz lotuta, beste batzuek desagertu egin dira gaur egun. Unamuno dialektoa zala be ausartu zan esaten baina bera jaio zanean, azken momentutan egoala, baina halan da be beste ehun urte iraun dau berbeta honek."

Begoñako berbeta nahasteak zelango eragina euki dauen Bilboko berbetean galdetuten deusgunean hauxe dinosku:


"ezinbesteko da bereiztutea 1940-50 sasoi inguruan hiru zonalde Begoñan, Bilbotik zein urrun dagozen kontutan hartuta. Lehenengoa, Begoña basilika ingurua, guztiz urbanoa eta erdalduna, Zurbaran, Atxeta, Uribarri, Santutxu... Beste bat, gaurko Txurdinaga eta Otxarkoagako zati bat bat, hemen, baserri giroa, urbanoa baino handiagoa zan baina erdereak be nagusia zan bertako hartuemonetan eta baita baserrietako barruko giroan be.

Hemengo erdereak, guztiz kutxatuta egoan euskereagaz bai berbetan eta bai esaldietan eta azkenean beste alderdia Bilbo erditik askoz be urrunagokoa, baserri utsez eta erdaldunekaz hartuemon gitxiago eukazanak, Otxarkoaga eta Arbolantxa. Hemen euskerea hobeto mantendu zan"

"Nire idatzien helburua zera da: Unamunok desagertuta moduan emoten zeuen berbetea, XX. Mende erdian oin-dino Begoñan erabilten zala, nahiz eta onartu behar dot gaur egun desagertu dala neurri handi batean"


### ADIBIDEAK

Chimbo (curriquera). Txinbo txoria  
Chio (mosquitero). Txio txoria



Anton Larrazabal mahatsorria

Chirta (bisbita-anthus sp.) Txirta txoria  
Chonta, chonta real ( pinzón) Txonta txoria.  
Artaburu.(Atontado)  
Berichindor. Begitxindorra  
Biocherre (Ardor de estómago)-Bihotzerre  
Cacannarro (pequeño).Kakanarrua  
Carrejo (pasillo). Karrejo  
Coitau guisajo.Koitedue, gisajoa  
Chicha (Carne, fuerza) Txitxi  
Charrito (Sucio). Zazkela  
Chichipozo (pozo séptico)  
Chimbera. Txoritxuak ehizateko arma  
Chocholo (atontado).Txotxolo  
Goitibera  
Peto. Trukeme ume olgetean marra zapadutea  
Capacha. Tabakoa, Erreteko erabilten zen arto orria.  
Kapatxa  
Iturri.(chapa). Botiletako iturriekaz egiten zan ume olgeta  
Pochingo. Putzutxua  
Zampaburu, (renacuajo) zapaburu  
Zaborra.



Santo Rosario, 1 (Santutxu)  
Tf.: 94 473 10 65




HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Chirimiri. Sirimiri  
Sirun. Zirauna  
Sirri (caricia) zirriak egin  
Sogalinda.Sugandila  
Tinaco. Tiñekua egurrezko kupela modukoa.  
Pilpil makailoa pil pil erara  
Carramarro. Karramarroa  
Chatarra. Txatarra  
Chimbo (Columpio) Ziboa  
Chirlora (Viruta) .Egurraren txirlorea  
Chiripa.(Casualidad) Txiripaz  
Chita (pollita) Txita  
Chominbedar. Txominbedarra bedar klasea



Seculebedar. Trébol. Ganaduentzako bedarra  
Chinguer (tizón). Txingerra  
Chombo (Zambullida).Uretara txonbo egin.  
Choriburu (ligero de cascós).Txoriburu.  
Neque (cansado). Nekatuta egotea.  
Virzay (Salvado) birzahi

Euskereagaz hain lotura garbia ez daukien Begoñako beste bertako berba batzuen adibideak: *Anchar* (esparcir, propagar), *apurruchar*, *balde*, *de balde*, *baldragas*, *borona*, *seruca*, *arvejilla*, *arpillera*, *pirrileria*, *branque*, *currucu*, *galipó*, *ceneque*...



# 'Seiscientos'zaleak Begoñan elkartzten dira

Auto historiko horren lagunen elkarteak Maurice Ravelen dauka egoitza

Testua: *Ixaso Pérez*

Argazkiak: *Asociación de Amigos del Seiscientos*

Nork ez ditu 'seiscientos'ak maite? Garai zaharretako ikurra dira gaur egun. Auto apal, sufritu eta eman-korra izan zen eta horregatik oraindik ere noiz edo noiz gure kaleetatik ikusten dugu, txiki eta umil, errepidean kilometroak astiro urratzen. Hain zerbitzu handiak egin ostean ez gara harrutuko 'Seiscientos' en lagunen elkarte izan badela jakitean. Eta elkarte hori Begoña aldean daukagu. Portzierto, 'seiscientos' ala 'seirehuna'?



Maurice Ravel etorbidean dira iragan urriaz geroztik, errepidearen ondo-ondoan, beren zaletasunarekin bat eginez edo. Denbora gutxi inguru hauetan baina horrek ez du esan nahi hemengo bazterretan berriaren direnik. Are gehiago, elkarte berez Begoñan sortu zen, bertako baten ekimenez. Orain dela hamar urte Mitxel izeneko mutil bati bururatu zitzaion berak bezala 'seiscientos' baten jabe zirenak bildu ahal zirela zaletasun beraren inguruan, eta ikusten zituen 'seiscientos' guztietan ohar-txo bat uzten zuen, "gura duzu 'seiscientos'eko elkarte-koa izan?" zioena. Horrela, bera lehendabiziko bazkidea zela, elkarte sortu zen, eta beren aurreneko irteera, Begoñan dagoen autoeskola baten ondotik abiatu zen. Lau edo bost auto Plentziara joan ziren.

Elkartearen estatutuak, formak eta karguak era ofizialean Zaratamoko Mini Bar jatetxean ezarri ziren. Jatetxe horretan izan dute egoitza orain arte, baina behar-beharrezkoa jo zuten une batean aldatzeko beharra, bertan ondo egon arren ez zeukatelako behar besteko lasaitasuna bulego lanak egiteko, bazkideen zerrendak osatzeko eta asmo guztiak antolatzeko. Orain, bulegoa eta biltzeko toki bat edukiteaz gain, errekanbioetarako biltegia ere badaukate, hain zuzen ere, errekanbio aleak aurkitzea zail samar suertatzen delako, leku guztietan ez dauzkatelako edota leku oso zehatzetan bakarrik topatu ahal dituztelako. Elkarteak loteka eskuratu ditu bazkideen beharrei erantzuteko.

Elkartean 200 bat bazkide dago, eta Bizkaikoa izan arren estatuko beste herrialdeko bazkiderik ere badago: Tafallako bat, Zamorakoa, Galiziakoa, Bartzelonakoa

eta Salamankako beste bat ere badira.

Baina hitz egiteko, oroitzeko eta pintxo batzuk jateko biltzeaz gain hainbat plan egiten dute urtean zehar. Honela, herrialdeka elkartzten dira hilean behin edo, batzaz beste 15 auto biltzen direlarik. Aurreko asteburuan Ibizan egon ziren eta hurrengo hitzordua Zaragozan daukate. Eta maiatzaren 4 eta 5ean San Vicente de la Barquerara joango dira. Ezkontzak ere ospatzen dituzte.

## INGALATERRAN ERE

Irtenaldiak etxetik 400 bat kilometrotara izaten dira (kotxeek urteen zama daramate aldean...), baina Ingalaterran ere egon dira. Hori bai, Pride Of Bilbao ferryan joan dira haraino. Baina zalantza barik irteera bereziana ITV pasatzeran joaten direnekoa da. Urtean behin, jakina. Aurretik kotxeak begiratu eta probatu behar dituzte, eta horretarako lagun duten Galdakaoko tailer batetara eramaten dituzte, bertan konpondu eta txukun uzteko. Orain arte kotxe den-denek ITV hori gainditu dute arazo barik, urte batean ITVra joaterakoan elurra mara-mara jauzi zenean ere. Eragozpenak eragozpen, denek egin zuten aurrera. Hori meritua, hori! Batez ere aintzat hartzen badugu 'seiscientos' horien artean Bilboko 'seiscientos' zaharrena dagoela, 44 urterekin. Ikus ezazue matrikula bestela: Bi-41117. Eta are zaharragoa den beste bat ere badago, estatuan hirugarren zaharrena alegia. Adinik ez alde batetik bestera ibiltzeko, antza.

Eta hau dena gutxi balitz, bada klubean ur azpitik atera behar izan zuten autorik. Izan ere, 1983eko uholdeetan horietariko bat hamabost egunez lokatza eta ur



Uda aldera Estatuko topaketa egingo da. Eta urrian Retromotor azokaren txanda iritsiko da Erakustazokara. Bertan elkarteak stand bat dauka.

## BATZARRAK

Kotxeen kopuruari eusten diote, edo, hobe esanda, kotxeek denboraren poderioari eutsi egiten diote, eta elkarte osatu zenetik kopurua asko igo ez bada ere, bere horretan mantentzen da.

Badakizue, 'seiscientos' baten jabe bazarete, astearte eta ostegunero arratsaldeko 8etatik 10:30ak arte gutxi gora behera, Maurice Ravel etorbidearen 14ean lekutxo bat daukazue zuen oroitzapenetaz eta hurrengo bidaietaz mintzatzeko.


'Seiscientos'a jaun eta jabe zen garaiko argazkiak

azpian egon baitzen, Salbe inguruan, muskui-luak hazten edo. Honek baieztatzen du zein gogorak diren 'seiscientos'ak!

Ekainaren 8 eta 9an Euskadiko 600eko VIII Eguna ospatuko da. Beste urteetan Etxebarria parkean egin izan dute, baina aurrean Bilboko Udalak ez die bertan egiteko baimenik eman eta lekuz aldatu beharrean egongo dira. Horrela, larunbatean Getxon ospatuko dute eta igandean, aldiz, Arriaga Antzokiko plazan. Elkartetik kexu dira Bilboko Udalaren aldetik jasotzen duten laguntza urriagatik, uste baitute elkarretaratze horiek garrantzia daukatela, 'seiscientos'a jende askoren bizitzaren zati polita izan da eta. Bitxikeria gisa aipatzen dute garai hartako bikote asko eta asko 'seiscientos'etan egin zirela. Jendearen bizitzaren historia eta kultura dela azken finean. Beste lekuetan zeharo ezberdin gertatzen ohi da: irrikan daude 'seiscientos'ak etor daitezten eta bitarteko guztiak jartzen dizkiete, batez ere, auto hauek jendea erakartzen dutelako.



Bitxikeri bat. Bada 'seiscientos', baina baita ere 'ochocientos'. Zertan bereizten dira, ba? Bigarrenak 4 ate eta luzeeran 18 zentimetro gehiago dauzka. Horra hor.



# ASAPALA

## KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: [asapala@eusnet.org](mailto:asapala@eusnet.org)



# Euskararen berri onak

'Euskararen Astea'k babes itzela hartu du eta D ereduak beste behin gora egin du



*Apirilak berri pozgarri bi ekarri ditu euskararentzat. Batetik, Santutxu eta Txurdinagan bigarren 'Euskararen Astea' egin da eta herritarren -eta batez ere gazteenen-erantzuna ikusgarria izan da. Bestetik, apirilean ezagutu ditugu aurrematrikulazio kanpainaren datuak. Datorren urtean inoiz baino ume mahatsorri gehiagok hasiko ditu*

*Testua: J. Larrazabal*

*Argazkiak: Iñigo Azkona / Berton*

APIRILAREN 16 ETA 21 BITARTEAN 'EUSKARAREN ASTEA' egin dute Txurdinaga eta Santutxun. Hainbat ikastetxe, talde eta herri elkarte batu dira euskararen erabilera bultzatzeko eta, beren-beregi, gazteek euskaraz egin dezaten motibatze-ko. Egitarauko ekitaldiak, oro har, arrakastaz egin dituzte, eta erantzunik onena ikastetxeetako ikasleen artean topatu dute.

*bere ikasketak D ereduan. Euskara hutsezko hezkuntza nagusi da, erabat, hala irakaskuntza publikoan nola pribatuan. Erdara hutsezko eskolak, ostera, 60 ume baino ez du bildu, inoizko emaitzarik txarrena. Datuon argitara beldur barik esan liteke mahatsorriok euskarari etorkizuna eman gura diogula.*

Aretoa jendez leporaino beteta zegoela aritu ziren, esate baterako, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Briñas eskolatan. Eta beste horrenbeste esan daiteke Santutxuko Bertso Eskolako bertsolariekin Sorgintxulon egindako afariaz. Ostiraleko eskola arteko herri kirolak ere hainbat ikasleren parte hartzeaz egin zen eta igandean dantzari egunak plazak eta bazterrak alaitu zituen.

Zenbat gauza egin diren eta herritarren erantzuna zein den ikusita, 'Euskararen Astea'k aurrera pauso galanta urratu duela esan daiteke. Iaz jaio zen eta aurten proiektua sendotu da. Erroztzen hasi da, sustraiak egin ditu non eta ikastetxe eta ikasleen artean bereziki. Horixe zen helburua, euskara ez dadila izan eskolako gela barruko kontu bat, eguneroko bizimoduan edonon aritzeko moduko hizkuntza baizik. Ikasleek inkestetan balorazio itzel altua eman diote egitarauari eta, alde horretatik ikusita, gazteenen intereseko gauzak egin direla esan daiteke.

Horrek erronka bat uzten du datorren edizioarako. Aurtengo arrakastaren ildotik, hurrengo urtean emaitzak oraindik ere potoloagoak lortu nahiko dituzte. Eta Korrikarekin batera egingo da. Horra hor erronka polita eta, duda barik, lan handia.

## AURREMATRIKULAZIO DATUAK

Euskararen bigarren berri ona ere eskola eta ikastetxeekin lotuta dator. Datorren urterako aurrematrikulazio kanpaina otsailaren bigarren hamabostaldian egin zen. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak emandako datuen arabera, gurean hiru urteko 469 ume izena emanda daude irailean euskara hutsez (D eredua) ikasten hasteko. Kopuru horrek ume mahatsorrien %53 biltzen du. Iaz baino 50 aurrematrikula gehiago dira eta, portzentajeetan, puntu bat gorago dago, iaz baino.

D eredua lehena da irakaskuntza publikoan zein pribatuan. Publikoan 232 ume (%57) dira D ereduko lerroetan eskolak hartzen hasiko direnak. Pribatuan kopurua altuagoa den arren -237 haur- portzentajea makalagoa da (%50). Hala ere, nahikoa da irakaskuntza pribatuan lehen aukera dela esan dezagun.

Eredu elebidunari dagokionez, 355 umeren aurrematrikulazioak batu ditu. Guztira, ume mahatsorrien %40. Aurreko urtearekin alderatuta ere igoera sumatzen da. Portzentajeetan, puntu bat altuago ibili da aurten iaz baino. Irakaskuntza publikoan matrikula guztien %34,7 dira B eredukoak. Benetako indarra, ostera, hezkuntza pribatuan datza. Iaz ere, azken urteotan asko dira A eredua bertan behera utzi eta B eredua hautatu duten ikastetxe pribatuak. Aukera horren atzean gurasoen joera zelangoa den dago, duda barik.

Horregatik, ez gara harrituko gaur egun irakaskuntza pribatuan B ereduak 216 matrikula -%45- biltzen dituela ikusita. Hala ere, esan legez, D ereduaren atzetik hezkuntza pribatuan ere.



## A EREDUA HILZORIAN

Batzuek arnas berria eman nahian badabilta ere, hilotsa hilots. Horixe gertatzen ari da A eredu erdaldunarekin. Gainbehera geldiezin da, honez gero. Guztira, 60 izango dira aurten erdaraz ikasten hasiko diren ume mahatsorriak.

Sarritan, erdal eskolaren defendatzaileek diote A eredua behera datorrela irakaskuntza publikoan erabaki politikoaren ondorioz, baina sasotsu dabilela sare pribatuan. Datuak

**GOJIAN S.C.L.**

**LAN BERTIKALAK**

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

**ANDAMIO BARIK**

**TELEFONOAK:**

**630 08 09 38**

**659 45 16 22**

**Bikoitz**

ARRLOPAK ★  
ZILARRA ★  
OPARIAK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU  
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO  
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

**MESÓN URETXE**

Santutxuko poteo gunean





## EUSKARAREN ASTEAREN ARRAKASTA

Aurtengo Euskararen Astea igaro da eta orain baloratzea dagokigu. Balorazio hau maila desberdinetan egin beharko genuke; alde batetik, ikastetxeen artean garatu diren jarduerak ditugu. Maila honetan oso balorazio positiboa egiten da kantu lehiaketa, bertso paper lehiaketa zein herri kiroletako lehiaketari buruz, azken horren arrakasta handia azpimarratuz.

Ikasleen aldetik jaso ditugun iritzietan oso 'nota' altuak jarri dizkiete jardueri eta datorren urtean ea 'Euskararen Astea' antolatzea merezi duen galderari, 'Noski baietz' ziur batez erantzuten dute.

Beste maila bat auzoetan egin diren ekitaldiak izan dira. Hauek ere, eguraldia lagun, nahiko ondo joan direla esan dezakegu, batez ere izan ditugun bitarteko urriak kontuan izanik. Oraindik antolatzaileen arteko balorazio zehatza ez dagoen arren, jakin badakigu ekitaldiak programatu bezala garatu direla, leku aldaketa txikiren bat salbu; eta jendearen parte hartzea, gazteena batez ere, oso ugaria izan dela ere bistakoa izan da.

Joan zen urteko Euskararen Asteak aurtengora hobekuntza kuantitatiboak (ikastetxe gehiagok hartu du parte, auzoko erakunde gehiago agertu da antolakuntzan eta lana banatzeko orduan, ...) eta kualitatiboak argiak izan dira. Aste honi jarritako helburuak lortzeko bidean ibili garela ere uste dugu, besteak beste, gazteak euskararen ingurura hurbiltzea eta bizitzako esparru ludikoan ere euskararen erabilera motibatzea.

Baina jakina da, hain zaila eta zabala den arlo honetan, zeregin handia dagoela oraindik. Bide horretan gure inguruko beste ikastetxe batzuk eta gurasoen arloa jorratu beharra ikusi dugu aurrera begira.

EUSKARAREN ASTEA BATZORDEA

ikusita, gurean ez dago holangorik. A ereduaren 23 ume baino ez daude irakaskuntza pribatuan, hots, ikastetxe pribatueta-ko ikasle berrien %4.8 baino ez. Nabarmena da sare pribatuak B eredura egindako aldaketa, eredu erdaldunaren kalte-tan.

Beraz, gaur egun irakaskuntza publikoan daude A eredu-ko ikasle gehienak. Mahatserrian eskola publikoko hiru urte-ko ikasleen %8.9 dira, 37 ume guztira.

### BARRUTIKA

Barrutika aztertuz gero, Uribarrakoa -Uribarri, Zurbaran, Matiko, Begoñaibarra...- da D ereduaren emaitza apalagoak ematen dituena, matrikula guztien %41 baino ez. Izan ere, Uribarri aldean oraindik ere nagusi da matrikuletan B eredu elebiduna. Datorren urteko matrikula berrien %51.6 eramate dituzte euskaraz eta erdaraz irakasten dituzten ikastetxeek.

Uribarrin B ereduaren gotorleku nagusia irakaskuntza pribatuan dago eta D ereduarena, aldiz, publikoan. A ereduaren umeen %7 dago, denak sare pribatuan.

Otxarkoaga-Txurdinaga barrutian, ostera, eskola euskaldunaren nagusitasuna erabatekoa da. Aurtengo aurrematrikulazioen %70 baino gehiago D eredura joan dira. 233 ume dira hala irakaskuntza publikoan nola pribatuan euskara hutsez ikasiko dutenak. Edozelan be, gehienak sare pribatuan ibiliko dira, inguru horretan oso ikastola handi eta ezagunak daude eta.

Inguru horretan 63 ume baino ez dira B ereduaren hasiko, %19 hain zuzen. Erdara hutsezko lerroetan 33 ume daude izena emanda. Bitxikeria gisa, barruti honetan X ereduko zentro bat dago, 35 ume edukiko duena. Atzerritarrentzat da (alemana). Berau da Bilbon A-B-D ereduaren sartzen ez den bakarra.

Azkenik, Begoñako barrutia -Begoña, Santutxu, Bolueta,...- dugu. Hiru barrutiotatik ume gutxien daukana da, 226 baino ez. Izan ere, inguru horretan ez dago ikastetxe askorik. Barruti honetan ere B eredu nagusi dugu, datorren urtean hiru urteko umeen %54 batuko ditu eta. Atzetik, D eredu dator, aurrematrikulen %44 bilduta. A ereduak, azkenik, lau ume baino ez dauka izen emanda.

### BILBOKO DATUAK

Bilboko datu orokorrak irakurrita ere, D eredu dugu nagusi. Irakaskuntza sare biak -publiko eta pribatu- kontuan hartuta, umeen %43.7 -1.100 haur- euskara hutsez ikasiko du. Sare publikoan portzentajea %70era hurbiltzen da.


Bigarren D eredu agertzen da, Bilboko hiru urteko umeen %42.5 batuta -1.070-. Kasu honetan, ostera, gehien-gehienek sare pribatuan ikasiko dute.

Azkenik, A ereduak 310 aurrematrikula lortu ditu. Horietatik gehienak -209- sare pribatuan. Guztira, hiru urteko umeen %12 joango dira erdarazko eskoletara.

e  
l  
k  
a  
r  
r  
i  
z  
k  
e  
t  
a

## Martin Orbe

"Euskal unibertsitatea sortzeko  
maila akademikoa dago"



Martin Orbe euskaltzale beteranoa Txurdinagan bizi da azken aspaldion. Abade jubilatua da, egun, baina beti bezain sutso dihardu euskal kulturaren alde. Berarekin egon gara kontu zaharrak berritzen: Errigoitiko umezaroa, bere atxiloketa, Zamorako kartzelaldi ospetsua, Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) idazkaria zeneko garaia,... Kontu berriak ere ekarri dizkigu: gaur egun zertan dabilen, euskal unibertsitatea noizko... Eta solasaldian zehar kontu bitxiak sortu zaizkigu: Solfeoa irakatsi zien nori eta Gontzal Mendibili eta Sabin Intxaurreagari!

Testua: Ektor Ortega  
Argazkiak: Inigo Azkona

### Garraioak



Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33

**Sugea taberna**  
Iturriaga, 92 Santutxu

### BASTERTXU



**TABERNA**  
Ricardo Bastida plaza



**Errigoitin jaio zinen, bertan hasi zinen ikasten?**

Lehenengo ikasketak Errigoitin bertan egin nebazan. Oso maisu berezia euki genduan. Gu gerraosteko lehenengo belaunaldia izan ginan eta ez 'Cara al sol', ez 'los puntos fundamentales de la Falange' ... Errigoitiko eskolan barruan erdaraz, klaro, baina behin gelatik urtendakoan, euskara hutsez. Eta, nagusitzean, behin baten maisu horri esan neutson 'gu errekreioan ibiltzen ginanean ez zenduen ezer esaten euskaraz egiten genduelako'; eta esan eustan 'cómo os iba a decir yo nada si lo que quería era eso, que hablarais en euskera'. Gizon hori Errioxakoa zan eta errepublikanoa, Errigoitira zigortuta eroanda. Eta gero seminarioan egon nintzanean lehenengoan akonplejatuta nengoan, Falangeren fundamentuak eta esaten eustazan eta nik pentsatzen neban 'ba nik hori ez dot ikasi'.

**Seminarioan non? Derion?**

Ez, ez. Ni arinagokoa naz. Lehenengo lau urte Arratiako Artean eta gero Gasteizera beste sei urte. Azkeneko urte biak Derion.

**Eta behin abadetu eta gero, nora?**

Zeaunira. 1958 urtea zan. Nonbramientoak apur bat beldurtu ninduen ze zan Zeauniriko parroikiko koadjutora eta bertako lanbide eskolako irakasle. Benetako sustoa hartu nebana! Gaur egun Zulaibar lanbide eskola da baina orduan hasi barria egoan. Urte aberatsak izan ziran, nahikoa mugituak. Nik uste dot orduantxe hasi zala gerra osteko lehenengo belaunaldia itzartzen eta gauzak egiten. Zeauniri izan zan lehenengo destinoa eta esaten da lehenengo destinoa izaten dala lehenengo emazte-gaia bezela...

**Ez dela inoiz ahazten...**

Ja, ja. Bai. Niretzat oso aberasgarria izan zan. Batetik, maisu lana. Egunero, lan gogorra zan baina ederra. Gero bestetik herri moduan ondo egokitu nintzala uste dot. Mendi aldeko herriek beti daukie euren berezitasunak... Zeauniritarrak oso herrizaleak dira, ... Orduan ni ondo... Bitxikeriak be baegozan. Udalak konpromisoa hartuta egoan herrian bals eta antzeko dantza arrimatuak ez ixteko egiten. Eta beste herrietan egiten zana han ezin zan egin. Bestetik, herrian ez egoan txistularirik. Bat bizi zan oraindino baina ez eukan indarririk. Ni instrumentuetarako ez naiz abila baina Seminarioan musika ikasten genduan eta hasi ginan apur bat oinarritik: 'nik solfeo irakatsiko dot'. Solfeo eskolak emoten hasi ginan, gero triple korutxo bat sortu zan eta gero koru txiki bat... Ikasleen artean euki nebazan oso pertsona eza-gunak: Gontzal Mendibil, Sabin Intxaurrea, ... Eta gero hirugarren atal inportante bat izan zan eleiz mailako 'Herri Gaztedi' mugimendua. Metodologian be Seminarioan ikasi genduanetik oso bestelako metodologia zan, oso aktiboa.

**Errepresioa ere sufritu zenuen ezta? Poliziak atxilotu zintuen...**

Bai, eskolan bertan. Ez zan gauza handia guk egindakoa baina baneukan beldur apur bat. Goiz batean, klaseak amaitu zira-nean poliziak kanpoan egozan. Jefeia etorri jatan eta esan eustan detentituta nengoala. Eta nik 'baina zelana? Obispoak badauka honen barririk?' Eta esan eustan deitzeko. Eta nik, 'baina hemen ez daukagu telefonorik'. Justo orduan telefonoak jo eban eta gainera txirrin normalaz aparte, tailerrean zarata handia egoten zan lez, telefonoak baeukan kanpana handi bat. Ba nik esan eta jo eban. Ja, ja. Azkenean ordu bi geroago atara ninduten esposatuta. Ikasleen artean be barria zabaldu zan eta han egozan danak pasilloan. Euren erditik eroan ninduten, txaloka hartu nin-

duen... Polizien nagusiak, Corderok, esan eustan: 'Qué? Ya ha conseguido lo que quería, no? Armar un escándalo'. Eta esan neutson: 'No, yo lo que quería era seguir ahí'.

**Nora eraman zintuzten?**

Lehenengo etxera eta gero Billbora. Gero torturatu egin ninduten. Beste batzuen ondoan nire torturak 'EGB'koak izan ziran baina hori da, benetan, nahiz eta asko ez izan, gogorra. Eta gero gogorra da Eleizako gotzainak eta, sinistu bai baina ez ikusiarena egiten dauela ikustea.

**Atxilotu ondoren zer?**


Kartzelan egon nintzan, Zamoran, hiru urte. Oso talde zabala eta ezaguna zan. Sei urteko kondena zan. Kartzela handia zan eta hango pabilioi bat abade presoentzat zan. Han abade gazte pilo bat egon ginan eta ondo planteatu genduan: ahal zana aprobetxau. Horretan oso esigenteak izan ginan geure buruarekin. Esan genduan: 'Gu ez gagoz hemen jauzi garelako ezpabere herri baten borrokaren barruan etorri gara'. Eta herri horri erantzuteko ba hantxe ikasi genduan euskara asko, Amurizarekin, idazten be bai, gero karrerak ikasten hasi ginan,... Alde horretatik ondo. Alde horretatik.

**Eta urtendakoan?**

Atzera be Zeaunira, nik eskatuta. Nire asmoa zan jenteari erakustea diktadurara gogorra zala baina ezin zala men egin. Hori ez dozu esango pulpitutik. Urte bi egon nintzan holan. Handik hiru urtera iges egin behar izan neban. LAB sindikatuaren sorrera izan zan. Guk egin genduzan oktabila batzuk tailerrean. Ez zan gauza handia baina hasi ziran jentea detentitzen eta iges egin neban Iparralde-ra. Bestaldera urtetako bezperan entzun neban Radio Parisen Franco oso gaixorik egoala. Ni Santanderreko fraile batzuen etxean negoan eta esan neutsen. Eta eurak: 'Jo, qué ganas tienes de que se muera'. Ezetz, ezetz, irratan esan dabe... Urriaren 20an izan zan eta handik hilabetera hil zan. Eta Franco hil ostean atzera etorri nintzan. Nik hasieran nahi ez neban arren, Zeaunira joan nintzan hirugarrenez. Baina lehenengo, Iparraldean nengoala aprobetxatuz, Udako Euskal Unibertsitate (UEU) hurbildu gura izan neban.

**Zergatik UEUra?**

'Herri Gaztedi' ren garaietan gu hasiak ginan euskarazko eskolak emoten, metodo barik. Eta gu kartzelara joan eta gero hor ibili zirenak gogoratzen naz batu ziralda Karmelo ikastolak Dimeko Indibitin eukan etxean. Han batu ziran lehenengo metodoa egiteko, 'Euskalduntzen'. Zamoran be hasi ginan Amurizagaz ikasten. Amurizagaz hainbat gauza ikasi genduzan, ze guk Seminarioan ez genduan ikasi euskal literaturarik ez euskal kulturarik. Eta euskal kulturaren munduan zaletu nintzan eta Iparraldean



nengoanez gero, UEUra hurreratu nintzan.

**Hurreratu eta askoz ere gehiago, idazkari egin zintuzten eta...**

Bai, ja, ja. Baina orduan burutik pasatu bez. Orain kontateko gauzak dira. Matrikularik ez nuen nik ordaindu! Ja, ja. Ez neukan dirurik. Shanti Brouard batek edo Telesforo Monzonek kotxez eroaten ninduten, 'klandestino' bizi nintzan eta... Manex Goihenetxek utzi behar ebalda eta nik orduko hirukote famatua lehendik ezagutzen neban, Xabier Mendiguren, Xabier Kintana eta Jose Ramón Etxebarria, ... Eta gero beste batzuk, Joseba Agirreazkuenaga, Anton Artiñano... Artiñano benetako mezenas izan zan, ha izan zan neure izena bota eban lehena, Zeberio-koa zan eta ezagutzen ninduen... Eta batzar orokorrean Jesus Mari Larrazabal zutitu zan eta esan eban: 'Baina nor da hori? Ez dogu ezagutzen, gutxienez hemen badago zutitu daitela!'. Eta nire ondoan Koldo Gorostiaga egoan eta baxu-baxu hasi zan esaten 'zutitu, zutitu'. Eta lotsatuta zutitu nintzan. Eta horrela izan zan nire hasiera.

**Eta zenbat urte egin zenituen UEUn idazkari?**

Zazpi urte. Zeaunirira bueltatu nintzan baina azken urte horiek ez ziran hain gozoak izan. Politika apur bat nahastu zan. Nik ez neban arazorik izan baina nire joera politikoa batzuek ez eban onartzen eta hori apur bat gogorra izan zan. Orduan goizez ego-

ten nintzan Zeauniriko eskolan eta arratsaldez UEUko Bilboko bulegoan. Eta azkenean eskatu neban Zeauniritik atara UEUn ibilteko. Hasieran Juan Maria Uriartek ez eban gura baina azkenean baietza emon eustan. UEU beste eskola bat izan da niretzat.

**Orduan pasatu zen UEU Hegoaldera...**

Bai. Lehenengo planteatu zan eta azkenean etorri zan. Zazpi urte eder egin nebazan hor eta ez neban itzi nekatuta negoalako. Hori esan neban baina ez nengoan nekatuta. Bakar-bakarrik itzi neban nire ustez egokiago zalako Unibertsitatearekin lotura gehiago eukan pertsona bat. Gerora begira, uste dot ondo egin da egoala.


**Harremanik mantendu duzu gero UEUrekin?**

Bai, asko. Badago hor talde eragilea eta bertan urteetan egon nintzan. Orain oso aldatuta dago eta pozik nago. Bere bidea egin dau. UEU beste unibertsitate baten saltorako planteatu zan eta hori ez dakizu noiz izango dan, baina bide polita egin dau bai.

**Euskal Unibertsitatea laster etorriko dela uste duzu?**

Zer esango deusut nik! Bide bi planteatzen dira: batzuek esaten dabe dagoan Unibertsitatean campus euskaldun bat sortu behar dala. Eta besteek esaten dabe herritik sortu behar dala unibertsiti-





tate barri bat, ikastolen ereduari jarraituta. Momentuz bateragarrak izan daitezke bide biak. Kontua da guk orduan, UEUn ibiltzen ginanean, arinago amesten genduan euskal unibertsitatea baina beste gauza asko lez luzatu jaku. Nire ustez baldintza akademiko minimoak betetzen doguz, beharbada hizkuntza handien maila ez dogu emongo baina egin leike lotsa barik unibertsitate itxuroso bat euskaraz. Beste baldintza batzuk dira gaur egun askoz be ahulagoak diranak. Aukera politikoen artean ez da hori serio planteatu. Denon arteko egitasmo serio bat izan beharko litzateke eta ez da hori gure lehentasunetan planteatu.

**Erandion ere abade ibili zinen hainbat urtez. Zelan?**  
Ondo. Erandio Goikoan egon nintzan eta oraindik gorago dagoan auzo batean: Goierri. Inguru euskalduna. Erandio, Bilbotik

## ZORTZI GALDERA LABURRAK

**Film bat:** 'En el nombre del hijo'.

**Liburu bat:** : Azkenengoa aitatzearen, Torres Queirugaren 'Por una religión liberadora'.

**Izen bat:** Miren/Patxi.

**Kantu bat:** Euskal kantu bat edo gregoriano bat.

**Janari bat:** : Edozer. Niretzat janaria da arrebak egindakoa.

**Toki bat:** Errigoiti.

**Mendia ala hondartza?** : Mendia, atzo bertan Anboton egon nintzen.

**Amets bat:** Euskal Herri askea, independentea... eta euskalduna, klaro.

hain hurbil egonik, oso jente diferentea zan. Nik grafikoki esaten neban: euren nortasuna agertzeko beldur bakoak. Errigoititik Bilbora etorteko jaiegunez jantzita etorri behar zan, baina Erandiotik etorten ziran asteguneko jantzita, andrak amantala ipinita plazara... Eta gero oso inpresino ona egin eustana izan zan inguru hartan ez nebala ezagutu gazte bat be drogan engantxatuta. Eta uste dot asko zala han egoan sokatira taldearen eragina. Euren 'buque insignia' zan.

### Eta Erandiotik Mahatserrira?

Bai, holan da. Txurdinagara etorri nintzan arreba baten etxera. Baina hemen ez daukot lanbiderik. Mahatserrian bizi bakarrik. Toki ona da biziteko. Detailtxo bat. Ni bizi naizen etxetik, nire gelatik kukua entzun neban kantaten. Nire gelatik, eh! Eta beste kontu bat. Badakizu, sega edo guadaña harriaz, segapotoaz, zorrozten da baina horregaz bakarrik gero agoa kamustu egiten da. Orduan, baserri guztietan ingude txiki bat dago eta mailutxu batez pikatu egiten da. Oso soinu berezia dauko. Ba horixe entzuten neban nik Txurdinagako etxetik, aurrean egoan baserrian egina. Orain ez.

**Zu beti ezker abertzalean egon zara. Eliza ofizialak, ostera, gogor astindu du ezker abertzalea... Bateragarriak dira? Galdera hori zaila da. Lehen 'Herri Gaztedi' mugimendua aiatu deusut. Ba hor ikasi neban beste gauza bat da erlijioa zelari bizi beharko leikean. Edozein pertsona erlijiosuak dauko gero eredu bat bere erlijioa bizitzeko. Eleiza katolikoak hori egiteko goitik beherako joera dauko. Abiapuntuzat Jainkoa, ente absoluto modura, gero bere eskakizunak, kodigo bat, dana handik goitik behera etorrita. Fededunak, jakina, Jaungoikoarengan sinistu behar dau, baina Elizaren eredu beste bat izan behar da: guk hemendik Jaungoikoarengana heltzeko eta bizitzeko modu hori zelari eratu behar dogun. Holan Eleizak oso erlijio indibidualista bultzatzen dau eta bestea, ostera, korapilatzen da eta hor agertzen jatzu gure herriaren arazoa. Gure ikuskeran ezin da hori alboratu, herriaren borroketan, herriaren ezinetan, herriaren gurarietan... hortik egin behar dau Eleizak bere eleiz eredu eta bere erlijio eredu. Eta hortik gero aurkitu Jaungoikoarenganako bidea. Eta uste dot azken kontzilioan bide hori nahiko argi markau ebalu. Pasatu dana gero izan da segun nor datorren gero hori aplikatzera... Hortik guretzako normala da, gure eskema horretan berehala topetan dozu herriaren nahia, herriaren ezina...**

**Zertan dabil gaur egun Martin Orbe? Badakigu Euskal Filologia karrera egin duzula...**

'Bostak Bat' edo 'Adorez' izeneko hiztegi talde batez kolaboratzen dot. Eta itzulpenak be bai... Oraintxe liburu bat zuzentzen.

# Sakelako telefonoa aldean hartu barik inora joaten zara



IÑAKI  
(SANTUTXU)

NIK BAI. EZ DAUKAT SAKELAKO TELEFONORIK. GAINERA NIRETZAT MOLESTIA DA. BEHIN EUKI NEBAN ETA EZ JATAN GUSTAU.



GAIZKA  
(ZAMUDIO)

NIK LANERAKO BEHAR DUT. ETA LANEAN EZ NAGOENEAN ERE ALDEAN DAUKAT. EGIA ESAN, BETI DARAMAT POLTSIKOAN.



OLATZ  
(SANTUTXU)

EZ. EZIN DOT. MUGIKORRA EUKI BEHAR DOT ESKUETAN ZE BESTELA EZ NAGO ONDO. EGUNERO.



JONE  
(TXURDINAGA)

EZ DAUKAT TELEFONO MUGIKORRIK. GAINERA EZ ZAIT GUSTATZEN. NIRE USTEZ BETI LOTUTA ZAUDE ETA GAINERA KONTSUMISMO MODU BAT DA, ALPERRIKAKO KONTSUMOA.



MARTA  
(ALGORTA)

BETI EZ. JENERALEAN ERABILI EGITEN DET BAINA BATZUTAN ETXEAN UZTEN DET.



JANIRE  
(SANTUTXU)

BETI DAUKAT ALDEAN. GAINERA NIRE LANERAKO BEHAR DUT. BAINA OHITURA HARTUTA NAGO ETA BETI DAUKAT ONDOAN.



ALAIN  
(ARRASATE)

EZ DAUKOT TELEFONO MUGIKORRIK ETA EZ DAUKOT BAPE ARAZORIK.



MARI TERE  
(BEGOÑA)

NI EDONORA NOA TELEFONO BARIK. BAKIORA NOANEAN BAI EROATEN DOT. BESTELA MENDIRA EDO NOANEAN BAI. BAINA NORMALEAN EZ, ZE NIRE BIZITZA OSO NORMALA DENEZ, BADAHITE ZEIN ORDUTAN DEITU BEHAR DEUSTEEN.



Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## Otxarkoagako urbanizazio lanek plaza, kale, lorategi eta aparkaleku berriak ekarriko dituzte Urte luzeetan atzeratutako proiektu hori 2005ean amaituko du Bilboko Udalak

Plazak, berdeguneak, kaleak eta aparkalekuak ekarriko dizkio Otxarkoagari Bilboko Udalak iragarritako urbanizazio proiektu orokorrak. Orain urte bi onartu bazen ere orain jarriko da abian eta 2005ean amaituko da. Zor historikoa kitatu behar du 20 milioi euroko inbertsio horrek.

1950 hamarkadan sortu zenetik Otxarkoaga auzoak urbanizatu barik eduki ditu bere bazterrak. Blokeka eraiki zen eta, ondorioz, ez kalerik ezta blokeen arteko espaloi, bide edo errepide asfaltaturik. Sortzez zetorkion huts horrek urte luzeetan iraun du eta gaur egun ere horrelaxe daude Otxarkoagako hainbat txoko eta bazter. Udal teknikoan kalkuluen arabera, auzoaren %70 dago urbanizazio lanen premian.

Duela urte bi, 2000ko maiatzaren 25ean, Bilboko Udaleko batzar osoak Otxarkoagako urbanizazioa egitea onartu zuen. Proposamena, beste askotan legez, Otxarkoagako familia elkartearen (AFO) eskutik etorria zen. Orduz geroztik abian jarri da 15.000 lagun bizi den auzo horretako suspertze urbanistikoa.

Guztira 20 milioi euro gastatu beharko ditu Bilboko Udalak, eurentarik 5 milioi Eusko Jaurlaritzaren 'Izartu' planaren bidez etorritakoak. Urtea amaitu orduko lehenengo lanak hasita izango dira. Amaitu, esan bezala, 2005 urterako amaitu gura dituzte.

### PLAZA ETA KALE BERRIAK

Guztira hiru dira urbanizazioak Otxarkoagari ekarriko dizkion plaza berriak. Zabalena Larrakoetxea kalean egingo dute. Bi zatitan banatuko da. Alderdi bat jai eta gizarte giroko ekitaldiak egiteko atonduko dute. Bestea, aldiz, umeentzako jokoez eta lorategiez hornituko dute. Txotena kalean, gainera, beste plaza bi egokituko dituzte. Lehenengoa 1, 31 eta 33 zenbakien artean egingo dute. Bigarrena, berriz, 23 eta 25 blokeen artean.

Kale berriak ere ez dira faltako. Esate baterako, Makaldi etxe-multzoaren, saihebidetaren eta Artatse eskolaren arteko eremuetan berdegunea eta autoentzako bide bat egokituko dute hiriko errepide sarearekin lotzeko asmoz. Inguru horietan dagoen zaramategia desagerraraziko da.

Beste kale batzuk ere lotuko dituzte. Arbolantxa eta



Urbanizazio lanak Larratundu kalean

Txotena, batetik eta Irumineta Makaldi etxe-multzoarekin, bestetik. Eta, azkenik, etxeen artean oinezkoentzako bidexkak egingo dituzte.

Dena dela, ez dira etxeen arteko komunikazioak erraztuko diren bakarrak. Izan ere, oraindik ere badira bloke batzuetara sartzeko eragozpenak. Esate baterako, Txotena aldean etartera iristeko zementuzko pasabideak atonduko dituzte.

### MILA APARKALEKU GEHIAGO

Otxarkoagako alderdi batzuetan autoa aparkatzeko arazoak itzelak izaten dira. Kontu horri itenbide bat emateko asmoz, urbanizazio planak 959 auto aparkatzeko tokiak egokituko ditu, lur gainean denak. Asko eta asko kaleetan jarriko dituzte, baterian edo ilaran aparkatzeko.

Baina kaleetako gain, Otxarkoagak aparkaleku zabalagoak edukiko ditu. Bi izango dira eta auzoko toki zehatz banatan jarriko dituzte: Larrakoetxea kalea eta Txotena ingurua. Alderdi bi horietan hainbat auto uzteko aukera edukiko dute otxarkoagarrek.

Urbanizazio planak ez dakar aparkaleku gehiago bakarrik. Auzoan egunerokoak diren zirkulazio trabak ere arindu gura dituzte, ataskuak eta irteerarik gabeko kaleak saihesteko asmoz.

## Otxarkoagako auzoak 'etsita' daude EAEko auzitegi nagusiaren jokaeraren ondorioz


Hiru urteko prozesu baten ostean epaileek ez dute aztertu nahi izan Aldundiaren 'iruzurra'

Otxarkoagako Familia Elkarteko (AFO) arduradunak prentsaurrean agertu ziren apirilaren 16an hiru urtez auzitegian egindako bidea bertan behera geldituko zela esateko. Auzoak 'etsita' daudela nabarmendu zuten. Jokabide horren arrazoia Euskal Autonomi Erkidegoko

(EAE) Auzitegi Nagusiaren ebazpen batek eman du. Izan ere, Otxarkoagako saihebidetara eraikitzerakoan Foru Aldundiko arduradun batzuek ustez eginiko iruzurra ikertu beharrean epaileek AFOren salaketa denboraz kanpo jarrita zegoela erabaki dute.

AFOko arduradunek argi eta garbi utzi zuten apirilaren 16an ez dutela beste batean salaketarik jarriko. "Lan handia eginda gaude. Ordu eta diru asko gastatu ditugu behingoz Administrazioak bere legeak urratu dituela frogatzeko asmoz. Ez dugu ostera ere egingo", esan zuten Otxarkoagako Familia Elkarteko arduradunek.

Prentsaren aurrean eskuan EAEko Auzitegi Nagusiaren ebazpena zekartela aurkeztu ziren AFOkoak. 1999an salaketa jarri zuten Bizkaiko Foru Aldundiaren kontra. Euren iritziz, Bilboko Plan Orokorrean Otxarkoagaren inguruan errepide txiki bat zena inongo aldatarik eragin barik autobia gisa agertzen zen urtebete geroago. Egin, horrelaxe egin zen eta gaur egun Ibar-



### MORROTXIKITO BASERRIA BOTA DUTE



Miraflores gainean zegoen Morrotxikito baserria hil honetan bota dute. Egun bakar batean etxea erauzi eta handik gutxi ez zen haren arrastorik gelditzen. Goiko argazkietan, Morrotxikito baserria duela hamar bat urte eta gaur eguneko egoera.

susi eta Orueta elkartzen ditu autobia horrek. Egune-ro, 14.000 auto ibiltzen da bertatik gora eta behera.

Auzitegi Nagusiaren erabakiak ez du azterten benetan aldaketa hori egin zedin planoak legez kanpo aldatu ote ziren. Epaileek ez dute gaiaren mamian sakondu nahi izan. Euren iritziz, kontu hori salatzeko unea ez da egokia izan. Ebazpenak dienez, AFOk 1995ean salatu behar zuen aldaketa hori, gertatu eta urtebetera hain zuzen. Salaketa 1999koa denez gero, ez dago zer epaitua.

### ONDORIOAK

Erabaki horren ondorioz, Auzitegi Nagusiak bide bazterrean uzten du berak 'delitutzat' jo zuen plano aldaketa bera ere. Ondorioz, zigor barik geldituko da operazio hori. Baina operazio horrek ondorioak ekarri ditu Otxarkoagan. Errepide txikiaren ordez autobia egin izanaren ondorioz 30.000 metro karratuko berdeguneak galdu dira. Berdin babestutako zuhaitzez betetako 21.000 metro karratuko lur sail bat ere. Eta galeren artean kirol instalazioei gordetako beste 6.000 metro karratu ere sartu behar dira.

Baina, batez ere, epaileen ebazpenak beste galdera bat utzi du erantzun zain. AFOko arduradunek euren esan legez, "zelan egin behar genuen salaketa 1995ean orduan ez bagenuen erabaki horren berririk?".



# TAO berria indarrean hastean arazoak sortu dira

## Alderdi askotan berandu jarri dituzte makina berriak eta lurreko marka koloredunak

Kritika handiak eragin ditu egunokaz apirilaren 15ean hasitako TAO sistema berriak. Hala Bilboko Udaleko oposizio-ko alderdiak nola hiritar asko kexu azaldu dira aldaketak indarrean sartu ostean ere bitartekoak ez direlako prestatuta egon. Gainera, euretarik batzuk oraindik ere ez daude. Bestalde, hiritar askoren kezka izan da informazio falta, eguna heldu eta jende gehienak ez zekielako zer egin behar zuen. Azkenik, ugariak izan dira ere aldaketa bera onuragarria izan beharrean kaltegarria suertatuko dela esan dutenak.



Gurean TAO (OTA) sistema Urribarrin (Begoñabarra-Matiko-Uribarri), Santutxun eta Solokoetxe-Prim aldean dago indarrean. Apirilaren 15ean Bilboko Udalak indarrean jarri zuen aldaketa sorta handi bat. Batetik, aparkalekuak hiru kolorekoak izan daitezke: laranja (bertan bizi direnentzat bakarrik), urdinak (bertakoentzat dohain nahiz kanpokoentzat TAO ordainduta) eta marroiak (guztiantzat, gehienez lau orduz). Bestetik, arratsaldeko ordutegia luzatu da (hiruetatik zortziak arte) eta Bilbo erdian, orain arte ez bezala, zapatuetan ere indarrean egongo da.

Aldaketok, berez, handiak dira eta ez dira gutxi izan nobedadeok arbuaitu dituztenak. Batzuen iritziz ez dira eraginkorrak izango eta beste batzuen ustetan bertan bizi direnen eskubideak bermatu beharrean urratu egingo dituzte.

### INDARREAN SARTU

Dena dela, arazorik handienak aldaketak indarrean jarri direnean sortu dira. Batetik, auto gidari asko eta asko kexu azaldu da Bilboko Udalak emandako informazio urriaz. Izan ere, eguna heldu eta hainbat izan ziren zer egin behar

zuten ez zekitenak.

Horretan zer ikusi handia izan zuen, duda barik, komunikazio ahalegina ez dela izan tamaina horretako aldaketak eskatu adinakoa. Baina bada gehiagorik ere. Zelako nobedadeak ziren jakinda ere, asko izan ziren autoa aparkatzera-koan aztoratuta ibili zirenak. Bilboko bazter gehienetan, eta euren artean Mahatserrikoak, falta ziren makina berriak eta asfalto ez zegoen kolore berriez hornituta. Beraz, gidariak zer egin ez zekitela ibili ziren.

Hau guztiau gutxi balitz, TAOko lan-gileak eurak agertu ziren jendaurrean esateko ez zeukatela ordu gehiagoz lan egiteko asmorik, are gutxiago zapatuetan. Beraz, aldaketa hori ere benetan gauzatuko ote zen zalantzan gelditu zen.

Apirilaren bigarren hamabostaldian Bilboko Udalak makina berriak jarri ditu bazter guztietan. Aparkaleku laranja eta urdinak ere denak pintatu ditu, baina marroiak oraindik ez dira azaldu.

### ALDERDI POLITIKOAK

Bilboko Udalak TAO berria indarrean jartzerakoan 'txapuza' egin duela salatu dutenak ez dira bakarrik hiritarrak izan. Alderdi politikoak ere agertu dira Iñaki Azkunaren gobernu taldearen erabakia kritikatzeko.

Alderdi batzuek, gainera, TAO sistema berria 'arinegi' jarri dela abian salatu dute eta, ondorioz, 'atzerapena' eskatu dute dena prest egon arte. Zirkulazio zinegotzi Isabel Sanchezek, ordea, arazoak izan direla onartu badu ere, aldaketa eginda dagoela aldarrikatu du. Haren ustez kaltegarria izango litzateke sistema beste behin aldatzea.

### SUTEA ARTXANDAKO MAGALEAN

Martxoaren 31n, eguerdiko ordu bata t'erdietan sute txiki bat hasi zen Zurbaranbarriko 28 eta 29 atarien aurrean dagoen landan, ez dakigun zeren ondorioz. Txikia zirudiena apurka-apurka zabaltzen joan eta une batez Artxandako Egirletaraino (Sto Domingo) iritsiko zela zirudien, kea eta zebilen haizerarengatik. Hor goian ostua eta baserriren bat badago, baita zuhaitz handi asko ere. Ellacuria Institutuaren atzeko aldetik gorantza joan zen, eta une batez orain urte asko izandako beste sute bat ekarri zuen gogora, non garai hartako eskolako galdera ia-ia urtu egin zuen. Suhiltzaileek bi orduz lan egin ostean sutea menderatu eta amatatu ere egin zuten.



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**bertan**  
Justseguna, Euskalgune, Aitziber Iruja, Iduna Taldea  
Urtzi Urrutikoetxea  
"Mugitsen" erakundearen jarraitzaileak  
Urtzi eta herria  
Urtzi eta herria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**bertan**  
Miren Agur Meabe  
"Eusko literaturan aniztasuna eta maila altua dago"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**bertan**  
Eladio Montiel, Otxarkoagako abesbatzaren zuzendaria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**bertan**  
Mikel Alvarez, mahatsorri bat  
Ezkerreko lantokietan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**bertan**  
Imanol Agirre  
"Batu naiten" taldearen jantziak  
esperantzarik

**bertan**  
MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

**hartu bertan etxean!!!**

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturria 5, 1. ezkerrean, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zentimena

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: .....

Herria: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia: .....

**DOHAIN**

Sinadura

E R R I K A R I A K



# KARMELO IKASTOLA BERRIAREN ALDEKO PLATAFORMA OSATU DUTE

*Bilboko Udalak ez du ikastola berria Gizakunde komentuaren osteko orubean nahi*



**Karmelo ikastolak Santutxu aldean ikastetxe duin bat behar du. Ideia hau behingoz egia bilaka dadin gizarte plataforma sortu da auzoko hainbat talde eta elkarteren babesaz. Ikastolako guraso elkarteak eta zuzendaritza taldeak behin eta berriz eskatu dute Gizakunde komentuaren osteko orubean egin dezatela ikastola berria, baina instituzioek -Hezkuntza saila eta Bilboko Udala- ez dute asmo hori onartu nahi. Datozen egunetan hiru alderdiak -ikastola, Udala eta Hezkuntza saila- batuko dira. Batzar horretatik konponbide egokirik atera ezean, mobilizazioak beste erremediorik ez daukatela iragarri dute Karmelo ikastolaren aldeko taldeek.**

*Testua: H.Ortega  
Argazkia: Iñigo Azkona*

**K**armelo ikastolak lokal berria behar duenik ez dago zalantzarik. Orain ikastolak etxebizitza batzuen azpian dago toki bitan -Santa Monika eta Menendez y Pelayo kaleetan- eta ez du legeak eskatutako baldintza guztiak betetzen. Ikastola publikoa den heinean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila eta Bilboko Udala dira arazoari irtenbide egoki bat emateko arduradun nagusiak.

Gauza jakina da azken hilotan ez dela akordiorik izan ikastolaren eta instituzio bi horien artean. Instituzioetatik eskaini zaizkien aukerak baztertu dituzte ikastolako arduradunek eta gurasoek. Izan ere, Mina del Morroko ikastetxeko zati bat, Zurbarenbarriko eskola, Miribillako auzo berria eta Solokoetxeko

eskola -gaur egun bertan dago Karmeloren DBH- ez ei dira ikastolarako irtenbide egokia.

Izan ere, Karmelo ikastolako guraso elkarteak eta arduradunek Gizakunde komentuaren osteko orubeko goialdean egin nahi dute ikastola berria. Bilboko Udalak enpresa pribatu baten eskuetan laga du inguru horretako urbanizazio eta eraikuntza lanak. Bertan etxeak, kirol instalazioak eta parke txiki bat atondu behar dituzte. Honez gero, induskailuak bertan daude beharrez eta horrek premiazko konponbidea eskatzen du ikastola orube horretan egingo bada.

Lerro hauek idatzi orduko ez Bilboko Udalak ezta Eusko Jaurlaritzak ere ez dute onartu ikastola berria inguru horretan



egitea. Bilboko Udaleko Surbisa enpresa publikoak, oster, baietza emanda dago. Surbisa da Gizakunde osteko orubearen urbanizazio lanak onartu zituen udal elkarte.

Datozen egunetan, hala ere, batzarra egin behar dute lehen aldiz hiru alderdiok -Bilboko Udala, Hezkuntza saila eta ikastola- batera konponbide bat topatzeko. Bitxia da, oso, Hezkuntza saila Eusko Alkartasuna (EA) alderdiaren eskuetan dagoela eta Bilboko Udaleko Hezkuntza zinegotzia, Jose María Uribarri, EAkoa dela.

**GIZARTE BABESA**

Bitartean, Karmelo ikastolak gizarte babesas jaso du azken asteotan. Plataforma bat osatu dute hainbat taldek eta elkartek 'Ikastetxe berri bat behar dugu' izenarekin. Asmo horri atxikimendua agertu diotenen uste dute Santutxu aldean eskoletako sare publikoan 'atzera pauso nabarmena' egitekotan daude instituzioak. Euren ustez, Karmelo ikastola tokiz aldatzean hezkuntza publikoko eskaintza hobetzeko egin behar da.

Kontuan eduki behar da Karmelo ikastola dela Santutxun D eredia eskaintzen duen ikastetxe bakarra. Gaur egun 400 bat ikasle ditu Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Horregatik, Karmelo ez dezatela Santutxutik atera eta behar dituen lokal duinak eman diezazkiotela eskatzen dute plataformako kideak. In-

tituzioen erantzuna ez badao bide horretatik mobilizazioak deitzeko prest daudela esan dute ere.

'Ikastetxe berri bat behar dugu' plataformak hainbat atxikimendu erdietsi ditu honez gero. Besteak beste, Santutxu, Solokoetxe eta Zazpi Kaleetako auzo elkarteak, AEK, Gaztedi dantza taldea, Euskaria abesbatza, Santutxuko Bertso Eskola, Sorgintxulo, Asapala Euskara Elkarte, Txurdikan karate kluba, 'Cantharelus' mikologi elkarte, Zuri-beltza xake taldea eta Santutxuko merkatarien elkarte. Bizkaiko Gurasoen Elkarteak (BIGE) ere babesas eman dio plataformari, baita Sortzen-Ikasbatuaz eta STEE, LAB, ELA eta CCOO sindikatuak ere.

**ZIRENAK ZIRELAKO GARENOK GARA**

Karmelo ikastola denbora luzez aritu da Bilboko Santutxu auzoan eskal kultur eremuan bere lana eskaintzen, bai erakunde pribatua zenean, baita irakaskuntzako sare publikoan daraman urteetan. Aspaldian, ikastetxeak azpiegituran dituen hutsuneak gero eta nabariagoak dira etorkizunerako bizi iraupena arriskuan jartzeraino. Ulergaitza da nola erantzule nagusiak diren Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Bilboko Udalak -gutzi honen jakitun direnak- gaur arte ez duten ezelako eskaintza duinik egin. Egoera hau dela eta, Karmelo ikastolarekin -lehen eta orain- zerikusia eduki duten irakasle, ikasle, guraso eta mota guztietako laguntzaileen elkarlana uztartzea eta sendotzea da hemendik aurrerako erronka eta plataforma honen abiapuntua, ondorengo irizpideetan oinarrituta:

1. Auzo eskola, auzoan bertan egon behar da kokatuta, auzoko bizitzan eta giza harremanekin tinko lotuta. Are gehiago, Udalaren eskutik Surbisak bideratutako proiektua Atxuriko baguadarako egun aldagarria da, kalteak oso txikiak eta hezkuntza hornikuntzaren aldetik abantailak begi bistakoak.
2. Eraikiko litzakeen eraikuntza berriak egungo segurtasun eta hezkuntza jarduerak duinak bermatzen dituzten araudiak bete beharko litzuzke, hezkuntza publikoaren aldeko apustua egiten dutenen eskubideak errespetatzeko eta bideratzeko.
3. Bilbon dauden D eredu naturalen (neguko loreak) bizi iraupena ziurtatu behar da, gure gizartearen herri eta hirietako batasuna eta loturak eskura ipintzen baitzikigute eta horrela besteengano integrazio gune egokia bilakatu.
4. Denboraz justu samar gabiltza eta orain arte konponketaz eta birmoldaketaz arduratu direnak premiaren garrantziaz konturatu behar dira; izan ere, auzoko eskola publikoetan integratzeko posibilitate guztiak dagoeneko baztertua daude. Auzoaren hazkunde bueltan dator eta ezin da ikastetxe pribatuen eskuetan bakarrik utzi etorkizuna, oso arrisksua litzatekeelako dagoen oreka txikia kolokan jartzea.

Aurrekoa kontutan harturik, Karmelo ikastola herri ikastetxearekin lotura bat edo beste eduki dugunok eta aurrerantzean gure proposamenekin bat etor daitezkeen pertsona eta elkarrekin ikastetxe berria aldarrikatzen dugu Surbisak Atxuriko baguadarako egindako proiektuaren barruan, orain arte agertu dugun jarrera irekia eta dialogarekin jarraituz.

'IKASTETXE BERRI BAT BEHAR DUGU' PLATAFORMA.

**ZUBEROTARREKIN BAT AUZOLANEAN**

Helburua: 1.000.000 €

**Xiberroa garatzen!** egitasmoa

902 33 88 66  
05 59 46 13 89

www.udalbilta.com



# Mahatsorri bat, zazpi gailurren jabe

## Mikel Alvarezek kontinente guztietako mendirik altuenak igo ditu

Testua: **Unai Cuevas**

Argazkia: **Mikel Alvarezek utzitakoa**

Pasa den apirilaren 13an (1.10 Euskal Herriko orduan) Carstensz piramideko (4884 metroekin Oceaniako mendirik altuena) gailurrera iritsi ostean Mikel Alvarez matso- rria munduko zazpi tontorrik garaienak igo dituen lehen- dabiziko bilbotarra eta bizkaitarra bihurtu da.

Honela, estatuan, munduan dauden kontinente guz- tietako eta polo bietako tontorrik altuenak igotzeko erron- ka berezi hau lortu duen laugarrena izan da. Otxarkoa- gakoarekin batera, espedizio honetan hiru estatubatuar eta kanadiar bat aritu izan dira ere.

Cartstszs piramidea, Indonesiako Irian Jayan lurral- deko oihan erdian kokaturik dagoen kareharrizko itzelez- ko mendigunea da. Iaz Otxarkoagako mendizaleak aha- legina egin zuen baina ezin izan zuen ezta mendira hurreratzea ere. Cartstszs piramidera igotzerakoan arazo burokratikoak izan ziren mahatsorriaren eginahala oztopatu zutenak. Haraino joan eta gero, horrek dakarren gastu ekonomikoarekin, bertako agintariek ez zioten bai- menik eman.



### ZAZPI GAILURREN KRONOLOGIA

- 1997: Aconcagua (6.959 m.). Argentina.
- 1998: Elbrus (5.642 m.). Rusia eta Georgia artean.
- 1999: Kilimanjaro (5.895 m.). Kenia.
- 2000: McKinley-Denali (6.194 m.). Alaska.
- 2001: Everest (8.848 m.). Nepal eta Tibeten artean.
- 2002: Vinson (4.897 m.). Antartida.
- 2002: Carstensz piramidea (4.884 m.). Indonesia.

### TXURDINAGAKO KIROLDEGIAN HOCKEY TALDE HANDIAK LEHIATU ZIREN

Pasa den hilean, Txurdinagako Kiroldegian, espai- niar estatuan dauden marra hockeyko (ohiko hoc- key eta izotz hockeyaren arauak tartekatzen dituen kirola) talderik indartsuenak lehiatu ziren autono- mia elkarte ezberdinetako txapelduen txapelketa- ren barnean. Azkenik, Kataluniako Castellbisbal izan zen garaile finalean Kanarietako Guanches taldeari 4-0 irabazi ostean. Hau, kanariarrek, 1999an irabazle izan eta gero, jarraian galtzen zuten hirugarren finala izan zen. Euskaldunen artean, donostiako Txuri Urdin izan genuen lehe- nengoa. Gipuzkoarrek laugarren postua eskuratu zuten brontzea lortzeko norgehiagokan Balear Irltako HC Espanyaren kontra 5-4 galdu eta gero.

Bestalde, bilboko Metropolitano, parte hartu zuten hamabi talderen artean seigarren sailkatu zen.

### SANTUTXU H.T., IGOERA FASETIK KANPO


Iruñeako Bradol San Antonio liderraren aurka bina berdidnu ostean, Santutxu Hockey Taldeak agur esan zion igoera fasea jokatzeko geratzen zaizkion itxaropen gutxiei. Izan ere, asmo berdinarekin bila zebilen Santanderreko Tenis taldeak, Gasteizeko Aurreraren aurka 6-7 irabazi eta gero igoera fasea jokatzeko txartela lortu baitzuen. Dena den, aipa- garria izan da santutxutarrek burutu duten bigarren buelta, lehenengoa bukatu orduko esperantza gutxi bazitzaiekin ere, azken txanpa bikaina egin ondoren azken uneraino aukerekin egon baitira.

# ARANGATXA (923 M.) ABEZIA (IZARRA)

Izarra herritik Zuatzu- Kuartangora errepidetik abiatu- ta, laster eskuinean irteten den errepidea aurkituko dugu Abezia auzora heltzeko, ber- tan, aska luze baten ondoan eta erreka aurrean utzi genuen autoa (A).

San Bartolome basiliza eskuinean utzi, eta errepika- gailurantz doan harrizko pistatik hasiko gara igotzen. Errepikagailura heldu baino hirurehun bat metro lehen- go ezkerretik hiru bide irteten dira biragune batean (B). Erdikoa hartuta, eroso igoko gara sapalda edo lautada batera. Han aurrez aurre ikusi- siko ditugu Arangatxa gailur- reko zuhaitzak. Etorri garen pistatik jarraituko dugu zulo handi bat ikusi arte. Bidea banatzen den leku batean eskuineko bidea hartu eta zuloa ezker aldean utzita Arangatxa mendiko zuhai- tzen artean (pagoak) sartuko gara.

Argigune batean alanbre hesia inguratuz Fortuna ize- neko ur putzua aurkitu behar dugu. Ur putzuaren alboan aska luze bat dago. Etorritako pistak zuzen jarraitzen duen arren, guk ezkerretara doana hartuko dugu, (harlauza batean gorriz margotutako gezi bat agertzen da). Pista honetatik pagadia zeharkatu eta irtendakoan beste pista batekin egin- go dugu topo (lehentxoago bazterrean dagoen harri batean beste gezi bat ikusi- ko dugu). Orduan, ezkerretara joango gara pistatik eta hirurehun metrora pagadia amaitzean pista utzi eta ezke- rretara joango gara larrean zehar, beti pagadiaren albotik. Goialdera heltzean pista bat aurkituko dugu eta bertan bi krain (D) ikusiko ditugu. Hauek jarraituz ehun metrora tontorra topatuko dugu, (923 m.), txartel kutxa ipuru artean dagoenez ez da argi ikusten.



### JAKINGARRIAK

Iraupena: Igoera osoa ordubete eta berrogei minutu. Bidean aurkitu genuen artzain batek ondoko hau adierazi zigun: mendi- katea Gibijo izenez ezagutzen dutela, alderdia Arangatxa eta txartel kutxa dagoen tokia Telleta. Txartel kutxa Arangatxa izen soila agertzen da. Fortuna putzutik hoge minutura antzinako otsotegi eder bat dago, ikusi nahi duenak hurrengo hau egin beharko du. Putzuraino ekarritako pistatik zuzen jarraituz, hamar bat minututan argi- ne handi batera irtetea, harresi bat ikusiko du ezker aldean. Bera jarrai- tuz (hobeto eskuinetik) beste hamar minututan otsotegian izango da.


Ikusi ditugun zuhaitz motak: 600-700 m.raino: Lizarra, Pagoa, Ametza, Artea. 700-900 m.raino: Haritza, Ipurua, Ametza, Urritza



# Auzoko biztanleen ahotsa izango den Otxarkoagako irrati martxan da

*Gauzak ondo, Otxarkoaga aldean laster batean irrati bat hasiko da emititzen. Prestakuntza lanetan dihardute egunotan inguruko bizilagunen ahotsa izateko asmoz. Gehiago jakin gurean, eurekin egon gara berbetan proiektuaren nondik norakoak zeintzuk diren hemen azaltzeko.*

Testua: Iratxe Ruiz



Orain bi urte inguru sortu zen ideia errealtate bihurtzar dago. Otxarkoagako auzo etxean biltzen den auzokide taldeak proiektu batzuk aurrera ateratzen dihardu aspalditik. Argazkilaritza tailerra eta ikus-entzunezkoekin harreman estua duten hainbat talde antolatu dituzte jada. 'Tendel' elkarteak da guzti honen arduradun bakarra.

Esan dugunez, duela pare bat urte auzoko arazoetaz arduratuko zen irrati sortzeko ideia bururatu zitzairen taldekoei. Emititzeko lokal publiko baten bila hainbat denbora eman ostean, auzoko parrokiaren txoko bat eskaini zieten. Parrokiako sukaldea omen zen hasierako estudio gunea baina pixkanaka gela eraberritzen joan dira eta antena ere lortu dute.

Auzo etxean eta Otxarkoagako hainbat zentro publikotan emititzeko arazoak suertatu zitzaizkien, ordutegi arazoak baitzituzten. Emititzen hasteko data zehatzik oraindik ez badute ere, euren esperantza da laster batean izango dela.

## PROGRAMAZIOA

Hasteko, 'froga gisako programazioa' emango dute baina eskainiko dituzten edukiak prest dauzkate honez gero. Goizetan ikasleei zuzendutako saioak izango dira nagusi. Horri esker inguruko ikastetxeetako ikasleek irratigintzan parte

hartzeko aukera izango dute. Arratsalde partean, ostera, etxeko nagusiak izango dira protagonista. Irratsaio batzuetan parte hartu ahal izango dute, telefono deiak jasoko dituztelako.

Gazteentzako txokoa egongo da baita ere; gainera, auzo eta inguruetako musika taldeek bertan beraien lanak 'aireratzeko' beta izango dute. Esan dugunaz gain, irratia helburu aldarrikatzai-



lea duela nabarmendu behar da beren-beregi, Otxarkoaga auzoko ahotsa izango baita. Programazio eta edukiei dagokienez irrati kultura-

la dela esan daiteke. Momentuz, Otxarkoaga eta Txurdinagan entzuteko gaitasuna dute baina beraien asmoa Santutxura ere zabaltzea da.



Hasiera batean ordu gutxiko emisioak izango badira ere, kalitatezkoak edo behintzat zentzudunak izatea bilatuko dute. Irratiaren arduraduna den German Olivarren esanetan, gutxi-gutxika irrati haztea dute helburu nagusizat, modu honetan

parrokiatik irten eta leku publiko batera mugitzeko. Proiektua aurrera atera dadin taldekoek lanean dihardute baina laguntzeko borondatea duen edozeinek hurbildu daiteke irratira. Zuen laguntza eskertzekoa litzateke!

## IRRATI-HERRIA

Otxarkoagako proiektu hori ez da jaino lur antzuan. Gure bazter hauetan lehendik ere irrati proiektu herrikoiak sortu eta garatu izan dira. Egia da gehienak duela hamar urte baino gehiago desagertu zirela, baina ia Mahatserriko txoko guztietan existitu ziren irrati txikiak.

Izan ere, 1980 hamarkadan irrati libreen mugimendua zabaldu zen Hego Euskal Herrian. Herri eta auzo askotan irrati txikiak sortu ziren komertzialtasunari uko eta proiektu sozialak izateko asmoz. Tokian tokiko gizarte taldeei eta eragileei ahotsa emateko jaio ziren eta hainbat urtez modu duinean egin zuten.

Garai hartan gurean hiru irrati sortu ziren. Uribarri aldean, 'Ortzadar irrati' jaio eta urte luzez mantendu zen dialean. Otxarkoagan bertan ibilbide laburrago egin zuen 'Otxasko irrati' aritu zen. Eta hiruretan famatuena eta bere mailan erreferente bihurtu zena, Santutxuko 'Iluna irrati'.

Irrati libreen oldarra aspaldian makaldu zen eta proiektu horiek denak desagertu ziren. Baina hazi hartatik beste ideia eta kontu asko biztu dira gurean. Gaur egun 'Tas-Tas' irrati dago Prim kalean, oraindik ere komunikazio alternatiboa posible dela egunero-egunero erakusten.

**INMOBILIARIA**  
**Gelaya**  
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA -  
SALMENTA - ALOGERAK - ...  
Iturriaga, 92  
Tfnoa. 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

**ADI** Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net  
**ASESORIA**  
FISCAL - CONTABLE - LABORAL  
SINDIC - MERCANTIL  
**Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza**

**PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!**  
**SAAK**



# horoskopoa

**Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Zenbat gara? Lau, bat, hiru, bost, zazpi... Abesti zahar-  
rari kasu apur bat egin behar jako.

**Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Zenbat eta gehiago egin are gehiago gelditzen jatzu  
egiteko. Baina ez etsi, egunen batean amaituko da  
eta...

**Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Zapatak urratuta dakaruz. Zertan zabilta, futbole  
ala dantzan?

**Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Zazpigarrena beti da ona. Eguzkia, airea eta bista ede-  
rrak daukoz...

**Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Mariagaz zoazen baxotxean albo-alboka eroaten  
dozu autoa. Hoba dozu zigarrotxo horiek ixtea...

**Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Maiatzeko lorak zuretzako gura dozuz baina, zu, lora-  
rik ederrena ondo-ondoan daukozu eta konturatu bez.

**Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Taberna guztietan besoak zabalik hartzen zaituzte. Ez  
ete dozu eukiko afizio larregi?

**Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Hona zuretzako predikzioa: Egunen batetan ligatuko  
dozu eta dan-danok enterako gara. Ala ez?

**Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Maiatzaren batean behargin kontzientzia biztu jatzun.  
Bai, baina, kontu egizu, behargin kontzientzia  
eukiteko, behar apur bat sikeran egin behar da...

**Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Kanta eta kanta zabiltz gau ta egun inguruko guztieri  
kaparradea emoten. Ixilduko zara minutu batez,  
laguntxo?

**Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Gaupasa kopurua jaitsi dozu eta zeure aurpegia beste  
bat da. Athleticen disgustuengaitik ez balitz...

**Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Artzain joan behar ei dozu hilabetez hainbeste astakir-  
ten ez agoantatzeko. Letxe txar horregaz bazoaz ardiak  
be joango jatzuz igesi...

# agenda

**MAIATZAREN 6-12**  
'KULTURAZ BLAI' KANPAINA BILBON.

**MAIATZAREN 9**  
HITZALDIA. 'BERTSO ESKOLAK  
ERDAL INGURUAN'.  
SORGINTXULON. 19:30ETAN.  
'KULTURAZ BLAI' KANPAINA.

**MAIATZAREN 10 ETA 11**  
DOCTOR DESEO.  
KAFE ANTZOKIAN. 22:00ETAN.

**MAIATZAREN 14**  
ESKOLEN ARTEKO II ANTZERKI TOPA-  
KETAK. BESTEAK BESTE, KARMELO  
IKASTOLA 'TXIMINOAREN TXIMINOKE-  
RIAK' ETA 'LAU ANAI UMEZURTZAK'  
ANTZEZLANEKIN.  
KAFE ANTZOKIA. 18:00ETAN.

**MAIATZAREN 15**  
ESKOLEN ARTEKO II ANTZERKI TOPA-  
KETAK. BESTEAK BESTE, KARMELO  
IKASTOLA 'PATXI ERREMENTARIA' ETA  
'LORE HORIA' ANTZEZLANEKIN.  
KAFE ANTZOKIA. 18:00ETAN.

**MAIATZAREN 19-20**  
MENDI IRTENALDIA.  
PEÑALARA (2.428 M). MADRIL.  
EGUZKI LOREA MENDI TALDEA.

**MAIATZAREN 20**  
BETIMU JAIAREN FINALA.  
KAFE ANTZOKIA. 16:00ETAN.

**MAIATZAREN 21**  
ESKOLEN ARTEKO II ANTZERKI TOPA-  
KETAK. BESTEAK BESTE, KARMELO  
IKASTOLA 'GAIXO TRANPATIAK'  
ANTZEZLANAREKIN.  
KAFE ANTZOKIA. 18:00ETAN.


**MAIATZAREN 22**  
ESKOLEN ARTEKO II ANTZERKI TOPA-  
KETAK. BESTEAK BETE, KARMELO  
IKASTOLA 'IRAKASLE GAIZTOAK'  
ANTZEZLANAREKIN.  
KAFE ANTZOKIA. 18:00ETAN.

**MAIATZAREN 23**  
PILT TALDEAREN KONTZERTUA. KAFE  
ANTZOKIA. 22:00ETAN.

**MAIATZAREN 25**  
UDABERRIKO BERTSO SAIOA. SANTU-  
TXUKO ESKOLA. ARKAITZ ESTIBALLES,  
JURGI GARITAGOITIA, JON EIZMENDI,  
OIHANA BARTRA.  
KAFE ANTZOKIAN. 13:00ETAN.

**MAIATZAREN 25**  
EUSKAL HERRIA-NIKARAGUA ADISKI-  
DETASUNEAN. UME JAIA. SEBASTOPO-  
LEKO TITIRITEROAK, KUKUBILTZO,  
TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX. ...  
17:30ETAN. KAFE ANTZOKIA.

bert'in



B A D A T O Z !